



# Matematika - zenbaki arruntak

Jone Uria Albizuri

Zenbaki arruntak zer diren azalduko digu Jone matematikariak, hitz neurtutan.

**Doinua: Zazpi ahizparen gai den oihala.**  
**Zortziko handia**

- 1** Zer da zenbaki? Ba zenbatzeko zerbait izango da, **tira!**  
1en hurrengo 2, 2tik 3, 4, 5, 6 ta **urrutira...**  
Infinitura hurbildu arren iristen ez den **segida.**  
Izenak hala esanagatik oso arruntak ez **dira.**
- 2** Zenbaki berri bat lortzen dugu bi biderkatuta, **noski.**  
Adibidez 4,  $2 \times 2$  da 6, 3 aldiz 2, **zehazki**  
Denak sortzeko prozedura hau hala ere ez da **aski,**  
ze horrela inoiz ez dira lortzen 13 ta **17.**
- 3** Puzzle bezala ikusten baldin badira zenbaki **denak**  
badira batzuk pieza batzuen biderketatik **irtenak**  
baina badira batzuk gehiago zatitu ezin **direnak:**  
hain zuzen ere pieza horiek dira zenbaki **lehenak.**
- 4** Zenbaki lehenak guk nahi adina daudela dakigun **arren**  
ezkutatuta daude hor nonbait edo gu gabilta **herren...**  
denak non dauden asmatu ezinik jada hainbat **mendeurren.**  
Pentsa, milioi bat ordaintzen dute berri bat **aurkitzearren!**
- 5** Lehenak non dauden, zer diren bakan ala zenbaki **artalde**  
bikoiti oro den bi lehenen batura Goldbach-ek **galde...**  
zenbaki arruntak jartzen ditugu sarri sinpleenen **pare**  
baina oraindik misterio pila dago deskubritu **gabe!**

